

Hitz beste

Haur eta gazte liburuen kritika eta erreseinak

Bularretik mintzora

Itziar Zubizarreta, Aurélio Edler Copès, Elena Odriozola...

Galtzagorri, Donostia, 2007


Iraganetik etorkizunera

Asko dira azken urteotan euskal tradizioa jasotzeko egin diren ahaleginak: haur txiki-txikiak hiztegi asko argitaratu dira han eta hemen, *Mixeri eta Mau* dut gogoan, hezitzaileentzako DVD batekin zetorrena, edota IBBYko ohorezko aipamena jaso duen *Urrezko giltza* lana. Batzuk ongi zabaldu dira, tradizioa eta transmisioa ongi uztartu dira, baina beste batzuk guztiz oharkabean geratu dira –edo emaitza erdipurdikoa zen– eta tradizioetik datorkigun altxorra pipiak jota geratu da berriro ere.

Bularretik mintzora du izena Juan Kruz Igerabidek ahozkotatzen buruz argitaratu zuen entsegu liburuderrak, eta *Bularretik mintzora* izenarekin datorkigu ahozkotatzenaren kutxa den CD-liburuxka eder hau ere, proiektu baten ikur izango litzatekeena.

Proiektuaren berri hedabideen bitartez heldu zitzaigun. «Helburu nagusietako bat sei urteko haurrengan irakurtzeko ohitura sustatzea da guraso eta hezitzaileen bidez, haien ingurune naturalean: etxean, eskolan eta liburutegian.» Baina proiektu horrek kokapen zehatza izango du, jarraipen zehatza, eta horretarako, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz, Tolosa eta gero, lurreta, Ermua, Oñati eta Amurrio aukeratu dira, eta bertan landuko da Juan Kruz Igerabide poeta, Juan Karlos Alonso psikologoa, Pello Añorga kontalari eta Itziar Zubizarreta adituaren bitartekaritza.

Dena dela, liburudendetan liburuekin batera ageri den CD-liburuxka hau, bere horretan, oso produktu ederra da. Bere kalitatea dela eta, gaztelaniazko Kókinos



argitaletxeko *Un libro, un CD* bakana dakarkit gogora, eta bereziki *A la sombra del olivo* liburu ederra, Magrebeko hainbat kantu dakarzikiguna. Esan bezala, 0-6 urteko haurrak ditu gogoan, eta haien hezitzaileak, gurasoak batik-bat, eta *Bularrean*, *Magalean*, *Jolasean*, *Hizketan* ataletan hainbat kantu, poema eta ipuin topatuko ditugu, baina ez edonola: Itziar Zubizarreta beraren, Juan Kruz Igerabide beraren, Pello Añorga, Lourdes Etxebarria eta Miren Agur Meaberen ahotsetan –eta ezin aipatu gabe utzi hitzarekin bikain uztartzen den Aurélio Edler Copésen musika garaikidea, lanari halako kadentzia guztiz propioa ematen diona eta Oihane Igerabideren harparekin eta Iñaki Telleriaren perkusioaren bitartez datorrena–. Hitz eta hots zaharrak formato berrian datozkigu, txalapartaren bihozkadetan bitartez, haurrari begietara begiratzeko eta sehaska kantuak kantatzeko, atzamarrak erakusteko, mina kentzeko...

Emaitza, Elena Odriozolaren marrazki minimalistek apaindua, proiektuaren barnean edo nork bere familian-eskolan lantzeko ederra da, eta iraganetik etorkizunera bideratua.

Laura Sagastume

Antton eta neskak

Könnecke, Ole

Itzultzaileak: LOLA ERKIZIA eta INAZIO


MUGIKA IRAOLA

Alberdania, Irun, 2008

Antton mutil sinpatikoa da, atsegina, jostailu mordo duena, baina neskekin jolastea du gogoko. Neskak, ordea, ez dira konturatzen hor dagoenik ere, atentzioa erreklamatzeko. Bat-batean erori eta negarrez hasi denean ohartzen dira, bai, Antton ondoan dutela. Inguratu, gailera eman, animatu eta neskekin jolastera doa mutikoa, zoriontsua guztiz. Baina...

Ipuin labur honetan ilustrazioak dira ezinbestekoak, testu gutxi baina. Marrazkiak soilik irakurrita ere erraz uler daitezke istorioaren nondik-norakoa. Alemaniako ilustratzaileak ezagunenetakoa da O. Könnecke eta haren marrazkiak bereziak dira: finak, xumeak, kolore gutxi baina, istorioak eskatzen duen moduan, alegia.


Gai nagusia izanik haurren sentimenduak adieraztea, ezin bestela izan: modu ezti, bigun eta epelean azaltzen digu eguneroko istorio arrunta, edozeinek sentitu dezakeen nahigabearen inguruko.



Lagunen arteko adiskidetasuna zein rol sexisten haustura adieraztea dira ipuin zoragarri honen helburua nagusiak, samurtasuna eta umorea erabilia, gainera. Eta ez da gutxi!

Album ilustratu honetaz gain, Alberdania argitaletxeak egile berberaren beste izenburu bat ere kaleratu du: *Antton eta hostoak*, oso edizio zainduan, kolore zuria nagusi duela hobeto azpimarratzeko marrazkien finezia. Baina hori hurrengo batean azalduko dizuegu, momentuz, negu honetarako badugu laguna, sutondoan irakurtzeko istorio aproposa, konpainia ederrean, Antton eta gu!

Asun Agiriano



Nasrudin

Odile Weulersse

Ilustrazaila: RÉBECCA DAUTREMER

Itzultzailea: NAROA OGANDO

Ibaizabal, Bilbo, 2007

Zeuk ikusi behar duzu

The Exploits of the Incomparable Mulla Nasrudin du izena Idries Shahek idatzitako liburu batek, bertan Mulla horren istorio ugari jasotzen ziren. Izan ere, sufien tradizioan istorioen bidezko irakaskuntza oso garrantzitsua da; hots, gertakari –askotan barre-garriak– edo istorio ezberdinen bidez bizitzan aurrera egiteko irakaskuntzak azaltzea. Helburua bikoitza da, ondo pasatzea –istorioa benetan entretenigarria eta polita izan ohi delako, edo, gutxienez, harrigarria– eta beste aldetik, ikastea. Jakina, hori erlijio guztiek egin duten kontua da; guretzat ezagunena dena aipatzearen, Biblian ageri diren parabolaren antzeko kontakizunak izan daitezke; sufistek, baina, horrez gain, ahozko kontakizuna landu zuten.

Ibaizabal etxeak Nasrudin protagonista duten bi liburu plazaratu zituen iaz; *Nasrudin eta Nasrudin & astoa*. Biak ala biak liburu ederrak, eta arestian aipaturiko filosofia horretan guttiz txertatuak.

Nasrudin gaztetxoa eta aita azokara doaz, aita asto gainean eta Nasrudin oinez. Hiriko atetik hurbil bisir bat aitaz gaizki esaka hasten da, mutikoa oinez eta hura asto gainean joateagatik. Nasrudinek etxera itzultzea eskatzen dio aitari; «—Aita, nekatuta nago, eta banoa etxera». Hurrengo astean azokara bidean orkatila bihurritu duela esango dio mutikoak aitari eta, horrela, asto gainean egingo du bidea. Jokabide horrek, ordea, emakume batzuen haserrea sorrarazten du:

«—Ez sinestekoa da! Mundua zeharo aldrebestu zaigu: gaur egunean umeak eroso-eroso ibiltzen dira asto gainean, eta helduek oinez joan behar! Aurpegiko larrua eduki behar da, gero!». (13. or.)

Mustafak, Nasrudinen aitak, gogor erantzuten die, aurrekoan bisirrari egin bezala; mutikoa, ordea, lotsaren lotsaz etxera itzultzen da aitzakia bat jarrita.

Astebete geroago azokarako bidaian aita-sembleak joango dira asto gainean, eta orduan ere jendearen esamesak jasan beharko dituzte; hurrengoan, oinez, eta astoa arinarin... baina, orduan tenteltzat hartuko dituzte. Azkenean, Nasrudinek astoa beraiek bizkar gainean eramatea proposatzen du, horixe baita jendeari jaramon eginez atera duen ondorioa. Aitak honako hau esaten dio orduan:

«Jendeak beti dauka burla egiteko aitzakiaren bat, kritikatzeko motiboren bat. Hori gertatzen denean, badakizu zer egin behar den?

—Kasurik egin ez?—galdetu du nahasita, begiak malkotan (Nasrudinek).

—Horixe da! Zeuk ikusi behar duzu entzuten dituzun hitzak zentzudunak diren, ala zentzugabeak eta gaiztoak». (32. or.)

Semeak aitari ulertu diola aitortu ondoren, Mustafak liburua —eta ikaskizuna— ixten duen esaldi ederra esaten du:

«—Zoriontsu egiten nau hain seme jakintsua daukadala jakiteak. Harro nago zutaz, Nasrudin». (33. or.)

Ipuina, askorentzat ezaguna, oso ondo kontatuta dago. Umorea presente dago

eta kontakizunaren erritmoa eta errepikapenak ahozko literaturako kontakizunen oihartzuna ekartzen ditu. Horrez gain, irudi handi, bizi eta ederrek are erakargarriagoa egiten dute liburua; eta ez hori bakarrik, haur txikiei kontatzeko orduan, irudien bidez istorioa jarraitzeko aukera paregabea eskaintzen dute.

Irudigileak perspektibekin, ikuslearen begirada egoera eta toki ezberdinetatik landuz, aberastu egiten du istorioa, Nasrudin eta Mustafa dira protagonistak, baina guk atsoen, bisirren eta beste askoren ikuspuntutik ikusiko ditugu, bai eta zuhaitz baten adarretatik narratzailearekin, hirugarren pertsona batekin, identifikatuz.

Zalantzarik gabe *Nasrudin* hau istorio paregabea da, liburu ederra, sufien filosofien alderdirik politena gureganatzeko edo haiengana gu zabaltzeko aukera zoragarria, baina, horiez gain, une atsegina igarotzeko eta gure haurrek barre egiteko liburua dugu.

Xabier Etxaniz Erle



Bizi, bixitxo!

Imanol Azkue

Ilustratzailea: EIDER EIBAR

Aizkorri, Bilbo, 2008

Narratzaile askoren istorioa

Behin baino gehiagotan aipatu izan dugu haur eta gazte literatura idazleek askatasun handia izan ohi dutela beren obrak idazterakoan. Gure artean helduen literaturan duela hogeita hamar urte izan zen antzeko egoera. Gai edo estilo aldetik esperimentaziorako joera zegoen eta gauza berriak egiteko gogoia. Orain, horrelako lanak haur eta gazte literaturaren inguruan egin izan dira (P. Zubizarretaren *Barrikadak* izango litzateke helduentzat eginiko kasu bakar eta aipagarrienetarikoa).

Imanol Azkuek eskainitako *Bizi, Bizitxo!* hau dugu horrelako beste adibide berri bat. Argumentua oso sinplea da, Xabik, kirola egitera doanean, katakume baten deia entzuten du autoaren motor aldetik. Hainbat gertakarien ondoren katakumea eskuratu eta emakume bati pasatuko dio. Abenturazko lana izan zitekeen liburu hau irakurlea harrapatzen baitu Bizitxoren ego-

erak, baina orainoan argumentua baino garrantzitsuagoa dugu istorioa kontatzeko era. Hau da, narratzaileen papera. Azkuek zazpi narratzaile ezberdin erabiltzen ditu istorioaren nondik norakoak azaltzeko. Guztiek, lehen pertsonan, kontatuko digute istorioa. Xabi, ertzainak, katua, aitona... gure begien aurretik protagonista ezberdinak pasatuko dira Bizitxoren abenturak eta desbenturak azaltzen.

Imanol Azkuek ederki lotu ditu narratzaile ezberdinen kontakizunak, baita bakoitzaren ikuspegiarena ere. Agian falta izan da narratzaileen ahotsen arteko ezberdintasuna, norberaren ahots propioa, baina hain kontakizun laburrean oso zaila da ahots ezberdin horiek lortzea.

«Kirol poltsa bete dut, pixkanaka: zapatilak eta galtzerdiak, galtza motzak, kamiseta, duxtatzeko xaboia, toaila...» esaldiarekin hasten da ipuin honen kontakizuna, Xabik esana. Ondoren kotxean ezkutatu den katua izango dugu narratzaile; beranduago ertzainak, Xabiren aita... eta argumentu haria etenik gabe jarraitu ahal izango dugu jauzirik gabe, hari argumentala ongi eraikitua baitago.

Pieza txikiz osaturiko puzzle bat da ipuin hau. Kapituluak oso laburrak dira, bizpahiru kontu azaltzeko eta narratzaile ezberdinen arteko lotura egiteko kasu gehienetan. Ikusi bestela aitonen amaierari katuak, hurrengo kapituluan, ematen dion jarraipena:

«—Bizitxo? Ondo. Esne pixka bat jarriko dizut, Bizitxo. Igual beldurtu eta sustoarekin ez duzu goserik izango, baina...» (24. or.)

«Beldurtuta egon naiz, susto ederra pasatu dut, baina gizon zaharrak katiluan esnea jarri didanean denak ahaztu ditut.» (25. or.)

Liburu sortzaileak erabilitako kodearen bidez lortu du irakurlea harrapatzea, Pedro Cerrillok *Literatura Infantil y Juvenil y educación literaria* (Octaedro, 2007) liburuan dioen bezala. Idazkera edo narratzeko era arrotz hori dugu Azkuearen baliorik handiena liburu honetan. Izan ere, istorioa hunkigarria, goxoa, dugu, baina era berean korapilo

eta zailtasun handirik gabekoa. Istorio hori narratzeko eran du, beraz, liburuak bere baliorik handiena. Eta egiteko horretan lagungarria da Eider Eibarren lana; irudi errealistak, argumentuaren haria hobeto jarraitzeko aproposak... eta baita kapitulu bakoitzaren hasieran narratzailearen irudia azkar eta erraz identifika dezagun nork jarraitzen duen istorioa kontatzen.

Bizia, interesgarria eta irakurterraza dugu *Bizi, Bixitxo!* hau, baina agian liburuaren mugek –irakurle hartzaileak eta argumentuaren sinpletasunak– eragotzi dute kalitate handiagoko obra izatea. Ahots ezberdinen lanketa, istorio berean egonda ere norberaren ekarpen handiagoa. Baina ez dugu ahaztu behar lehen irakurleentzako obra baten aurrean gaudela, obra interesgarria eta guztiz gomendagarri baten aurrean. Heziketa literarioan aberasgarria den ipuina, alegia.

Xabier Etxaniz Erle



Gurasoak estu

Manu López Gaseni
Ilustratzailea: AGURTZANE VILLATE
Aizkorri, Bilbo, 2008

Konplizitate mailak

Behinola haur eta gazte literaturari buruzko aldizkariaren 16. alea zela eta egin ziren jardunaldietan, Aizkorri argitaletxeko editore Aurelio Erdozainek esan zuen gero eta gehiago iristen zaizkiola, berak, «familia literatura» deitzen dion arloko originalak. Oso oker ez banago, berak argitaratutako Zubizarretaren *Gaspar eta zuhaitzak* aipatu zuen, eta segidan galdera egin: norentzat dira liburu horiek, haurrentzat ala gurasoentzat?

Bada, hain zuzen ere Aizkorriko lehen irakurleentzako bilduman argitaratu du editoreak Manu López Gaseniren *Gurasoak estu* ipuina, Agurtzane Villateren ilustrazioekin (gogoan ez duenarentzat, Igerebideren Jonas saila kokatzen da bilduma honetan, eta López Gasenik berak beste liburu bat du bertan argitaratua: *Semaforoko ipuina*). Eta irakurle honi berriro ere gogoratu zaio editorearen galdera: norentzat dira liburu horiek, haurrentzat ala gurasoentzat?

Lehenik eta behin, esan beharra dago gurasoak direla liburu honetako protagonistak, argumentua haien kezka baten inguruan osatua dagoela. Eta ondo dago

haurrak protagonista nagusi izango ez diren haur liburuak eskura izatea, haiek beren ingurune afektibo hurbilenari zein munduari begiratzeko hitu daitezten: guraso, irakasle, mediku edo dendariak bezalako pertsona helduak... *Gurasoak estu* honetako aita-amak sekretuka dabilta, betiere Andoni txikiak harrapa ez ditzan: gelara joan nahi dute, ezkutuka joan ere, azkar, presaka... (narratzaile orojakileak jolas egiten du irakurlearen susmoarekin, *Erotik* hartan Antton Kazabonek eta Jokin Mitxelenak sexuari buruzko gaizkiulertuekin eta anbiguitatearekin egin zuten bezala). Orenen buru, argi dago haurrek eta gurasoek desberdin irakurriko dutela liburu, nork bere adinaren eta esperientziaren arabera jasoko duela ipuinari darion ironia fina.

Arazo domestiko bat dugu, hortaz, ipuinaren ardatza, eta Andoni hirugarren mailan egotetik lehen mailara pasatuko da, berak eragingo digu ipuinaren amaierako irribarrera. Dirua, janaria –zer pentsaraziko ote die haur irakurleei Andonik gailera, txokolate edo patata tortila gogaikarritzat jotzeak?–, guraso eta seme-alaben arteko harremanak... Anbiguitatea, beraz, umorea eta tentsioarekin ederki baliatuta datoz istorio erakargarria egiteko, eta ezaugarri horiek biagiogotak agertzen zaizkigu Agurtzane Villateren ilustrazioetan: figura zehaztuak dira bereak, trazo beltz nabarmenetan emanak, ordenagailuz margotuak; eta figurekin batera, giroa bereziki landua ikusiko dugu, Elena Odriozolaren hainbat dekorazio lanetan bezala.

Testu erakargarriaren eta marrazki bizi-alaien emaitza, azkenik, ederra da eta argi dago haurrek zein nagusiek, nork bere konplizitate mailarekin, gozatu egingo dutela liburu honekin. Are gehiago: hizpidea emango duela irakurketaren ondotik ere berrikerian jarraitzeko, istorioa nork bere familia ekartzeko eta erkatzeko... .

Laura Sagastume

Aitona eta amona udalekuetan

Joxantonio Ormazabal
 Ilustratzailea: JOKIN MITXELENA
 Elkar, Donostia, 2008


Libe gogoan etengabe

Aurreko batean, liburu baten komentarioaren inguruan, gizartearen izan diren aldaketak literaturan oso gutxi islatzen direla azaldu nuen. Agian, eta horrela aipatzen nuen orduan, familian ikus daiteke hori argien. Azken 30 urte hauetan familiaren ideia asko aldatu da, zentzu eta aspektu askotan, baina bestalde, azken garaian aitona-amonen itzulera dei genezakeen fenomeno gertatzen ari da. Aitona-amonak baina paper berri batekin: umeen ardura hartzen duten familiarrak.

Joxan Ormazabalek *Aitona eta amona udalekuetan* liburu honekin aitona-amonen eskainitako trilogiaren azken lana aurkezten digu. Hasi-hasieratik, Ormazabalek argi eta garbi azaldu zuen aitona eta amona hauek ez direla ohikoak. Bata parapentean eta bestea bizikletan ikusi ditugu aurreko lanetan; oraingoan, berriz, Libe bisitatzera doaz udalekuetara. Gurasoen irizpidearen gainetik, bidaian era guztietako gertakariak izanik, aitona eta amona Libe dagoen udalekura iritsi eta bertan geratuko dira zenbait egunez.

Ipar Europatik datorren korrante ildoarekin (hor ditugu hirugarren adinekoei buruz hainbat lan Härtlingek, Lobek, Strongek edo Nöstlingerrek esaterako, idatziak) bat etorri Ormazabalek gai horri heltzen dio, eta heltzen haurrentzako erakargarrienak diren elementuak erabiliz: abentura eta umorea. Horrela, gainera, errealismo kritikoa korrontearen eraginetatik at, eta baztertuz idazle askoren lanetan ageri den «errealitate gaiztoa eta okerra» (Manu Lopezek *Literatura umei begiratu zientean* aipatzen duen bezala), kontakizun errealista baina, era berean, umoretsua, alaia eta itxaropentsua azaltzen digu.

Ipuineko argumentua nahiko sinplea da; Libe udalekuetara bidaltzen du gurasoek haren nahiaren kontra. Ondoren, gurasoak



Pirinioetara joan direla aprobeztatuz, aitona eta amona udalekura joango dira iloba ikustera. Bidaia, Goierriko herri batetik Urbasa aldera, abentura bat da. Autostop eginez ari diren aitona-amonak jende asko ezagutzen dute eta gidari edo pertsona ezberdinekin tratatzeko aukera dute. Ondoren, udalekura iritsita, liburuaren bigarren partea dugu, aitona-amona udalekuetan nola moldatzen diren eta zer egiten duten.

Egia da, beharbada bidaiari eskainitako denbora nahiko luzea dela, baina pertsona mota ezberdinen jokabidea erakutsi nahiak bultzatua; eta ateraldi, gertakari edo egoera xelebreen sorburu ere bada bidaia. Gainera, idazleak herri izenekin jolas egitera animatzen gaitu; horrela Asolot dugu Tolosaren lekuan, Txarri Etxarriren ordez, eta abar.

Oro har, nahiko erraz eta arin irakurtzen den ipuina dugu hau. Are gehiago kontutan izanik Jokin Mitxelenaren lan aparta ilustrazio arloan. Idatzizkoaren osagarri ederrak dira Mitxelenaren irudiak, hobeto ulertzeko lagungarriak izateaz gain, ilustratzaileak ere bere ekarpena egiten baitu lanean. Horrela, irudiek, pertsonaien karakterizazioan laguntzeaz gain, aberastu egiten dute informazioa, eta narrazioan deskribapenen pisua arindu.


Bukaeran, Ormazabalek misterio puntu bat gehitu dio narrazioari. Udalekuan

daudelarik, aitona-amonak irakurtzen dute, harrিতa, ertzainak eta udaltzainak haien bila ari direla.

«Zur eta lur geratu ziren biak, ikusten zutena sinetsi ezinik. «Arraio gorria!» esan zuen aitona, eta «Arranopila! Nork jarri gaitu gu hemen?», amonak. [...] Argazkiaren azpian letra handiz zetorren albistea: AITONA-AMONA BATZUK DESAGERTU DIRA ASOLOTEN.» (37-38. or.)

Azken ukitu honek arintasuna eta erakarpena ematen dizkio testuari, irakurle abenturaren bukaerara arte irakurtzera animatuz.

Xabier Etxaniz Erle



Anekdotak

Ruben Ruiz

Irudiak: EIDER EIBAR

Pamiela, Iruñea, 2008

Tradizioaren arrastoan

Ruben Ruiz arabarra ibilbide literario interesgarria pauso sendoz finkatuz datoren idazlea da. Alburua, poesia, ipuina... landu ditu orain arteko ibilbide oparoan, oraindik orain haur literaturako Lizardi Sariarekin aitortua, Anekdotak liburuagatik, hain zuzen ere.

Liburuko protagonista Ane izeneko neska-to bat da, zortzi bat urtekoa, egunerokoan gertatzen zaizkion pasadizoak edo ikusten dituen bitxikeriak idatziz kontatzea erabaki duena. Azkenean, hogeita hamar bat testu labor bildu ditu, bere-bereak, eta horregatik jarri die «anekdotak» izena, Anerenak direlako.

Ume baten begi-belarriak jasotako istorioak izanik, xalotasuna darie testu hauei: ume txiki baten harridura helduen konbentzio askorekin. Abiapuntu horrek bide batzuk zabaldu dizkio idazleari; batetik, hitzekin egindako jolasak, bereziki Carrolen Aliziak «maleta-hitzak» deitzen zituen haiekin, hau da, bere barruan beste hitzak daramatzaten hitzak, liburuaren izenburuak protago-

8+

nistaren izena daraman bezala. Beste bide bat, Rodariz gero oso emankorra, eguneroko hizkerako esamoldeak zentzu zuzenean hartzetik datozen gaizkiulertuak dira, hala nola testu honetako «zakur-eztula izatea» edo «adurra dariola egotea». Liburuko baliabideen inbentarioa agortu gabe, aipatuko dudan azken bidea protagonistaren begirada xaloaren ondoriozko umore beltza da, «Aitona» izeneko pasartearen bezala.

Ruben Ruizen testu interesgarri honek originaltasunari uko egiten dio, propio uko egin ere, euskal haur literatura modernizatu duen tradizio emankor batean txertatzeko. Garapen narratiborik gabe eta protagonista baten ahotsa beste loturarik ez duten kontakizun laburren (edo mikroipuin) adibide kanonikoa Mariasun Landaren *Iholdi* izan zen; haren atzetik, inoiz aipatu dudan bezala, beste asko etorri dira: Juan Kruz Igerabideren *Bota ura!* (*nire terrazatik*), Josu Penadesen *Iluntzero elkarrekin* eta Patxi Zubizarretaren *Gaspar eta zuhaitzak* izan dira aipagarrienak. Kasu batzuetan, pasadizo horiek esplizituki jasotzen dira idatziz, sinesgarritasunaren auzia zabalduz, Igerabiderenean bezala (norbaitek oparitutako koadernoan), eta beste batzuetan, berriz, ez; edonola ere, ezaugarri ondo definituak dituen «azpigenero» baten aurrean gaudela esan daiteke. Horregatik, Anekdotak irakurtzean, beste horietako oihartzunak entzutea ezinbestekoa zaio irakurleari.

Lizardi sariko idazlan irabazleen tradizioan ere sartu da *Anekdotak* hau, eta aurreko askori bezala umeari begira baino gehiago bitartekariari begira idatzia izatea kritikatuko zaio akaso. Izan ere, beste tradizio horretan *Txan fantasma*, *Tristuraren teoria* edo *Kea airean bezala* obren ondoan egoteak etiketa hori ekar dezake. Ez dut uste, ordea, hala denik.

Eider Eibar irudigile gaztearen estilo pertsonala, azkenik, bereziki nabarmentzen da koloretan egindako edizio ikusgarri honetan.

Manu Lopez Gaseni

Munstroen ipuinak

Askoren artean

Ilustratzailea: Askoren artean

Itzultzailea: MANU LOPEZ GASENI

Ikasmina, Arrigorriaga, 2008

Beldurrari barre egiteko liburuak

S. M. etxeak bere irudia eta argitalpen politika aldatu nahi ditu euskal merkatuan, eta horren ondorio dira argitaletxearen izen berria, Ikasmina, eta urteetako geldiunearen ondoren plazaratzen hasitako liburuak. Batik bat «Baporea» sailean egin dute esfortzurik handiena, baina liburu horiez gain bada bildumetatik at kaleratu duten bitxi bat: *Munstroen ipuinak*.

«Irakurtzeko, ulertzeko eta ondo pasatzeko» azpтитulua duen liburu honek elementu askoren osaketa dugu. Alde batetik lau ipuin daude, laurak munstroen ingurukoak, eta ipuin horien ondoan, ezker aldean, bada munstroen inguruko informazio osagarria. Bukatzeko, azken orriak jolas egiteko ariketa batzuek osaturik daude. Bada, entretenitu eta hezi asmo horiekin bat eginez, ipuinetan ageri diren hitz zailak azaltzeko hiztegitxo bat ere, bizpahiru hitz komentatuz orri guztietan.

Beraz, liburu honetara hurbiltzen denak puzzle baten aurrean aurkituko dela sentituko du. Jolasa, entretenimendua, informazioa... eta estetika zaindua munstroen inguruan. Hasieran, Hans Jürgen Press idazle alemaniarren *Eskubeltz taldearen*



8 +

abenturak (Elkar) edo horrelako liburuak etorri zaizkigu gogora, jolas egiteko literatur lanak. Baina Ikasmina etxeko liburu honek, irakastetik gehiago du eta literatur lanetik gutxiago; eta hori nabarmena da munstroei buruz ageri den informazio osoa eta zabalean. Gure kulturaren, ekialdeko kultura honetan, munstroei buruz dauden uste eta sinesmenen inguruan informazio asko agertzen da liburuan, non ezkututzen diren, izan ditzaketen arazoak, beren jokabidea otorduetan, ezaugarri fisikoak, munstro ezagunen izenak eta ezaugarriak... azaltzen dira, beraz, oso modu sinple eta ulergarrian irudi ugariz lagunduta.

Lau ipuinek osatzen dute liburuaren zatirik handiena eta garrantzitsuenak, *Amesgaiztoen kutxa*, *Kontuz herensugearekin*, *Hitz itsusiak esaten zituen ogroa* eta *Espazioko munstroa*, gai eta estilo aldetik oso ezberdinak laurak, eta baliabide literarioen aldetik nahiz ilustrazioen kalitatearen aldetik ere, oso ezberdinak. Guztietan aurkezten zaizkigu pertsonaia nagusiak, non gertatzen den ipuina eta zein generotakoa den; suspensea lehen biak, ipuina (?) hirugarrena eta zientzia-fikzioa azkena.

Zaila gertatzen da hainbeste eskuren artean eginiko liburua komentatzea (ez dugu ahaztu behar itzultzaileak eginiko lan zuzena ere) baina azpimarratzekoak dira lehen bi ipuinak, beldurrari, mamu, munstro, banpiro, armiarma... eta gainerako pertsonaiei diegun beldurrari aurre egiteko, beldur horren tokian umorea jartzeko, barrea gureganatzeko.


Haurra jolas egiten duen pertsonaia dela diote psikologoek, baina baita etengabe ikasten duena ere. Horregatik ikaste, entretenitze eta garatze prozesu horiek umorearen bidez bideratzen badira askoz hobea. Eta liburu honek helburu horiei erantzuten die. Jakizu munstroek gogokoen dituzten edariak haragi freskoaren zukuak, odol beroa eta ume bihurrien salda direla edo Can Cerbero, infernuko atearen zaindaria, hiru buruko zakurra dela eta sugeak dituela lepo

inguruan; baina jakizu baita ere zure ustez herensugea dena txakur bat izan daitekeela edo ogroak ere maitemintzen direla.

Munstroen ipuinak hau oso liburu ederra da, nahiz eta badituen akats nabarmenak argitalpen aldetik. Ulergaitza da «pasatzeco» bezalako akatsa ikustea horrelako liburu ederrean, edo paragrafo oso bat errepikatuturik, eta lekuz kanpo, azaltzea (114. orrian ageri den bezala). Arestian aipatu izan dugu Ikasmina etxeak ibilbide berriari ekin nahi diola euskal merkatuan, horrelako akatsek baina, ez diote asko lagunduko.

Xabier Etxaniz Erle

10 +



Zaldun beltzak

J.M. Olaizola "Txiliku"

Ilustratzaileak: EIDER EIBAR

Elkar, Donostia, 2008

Behinola ironikoa

J. M. Olaizola, *Txiliku*, eskarmentu handiko bitartekaria da haur eta gazte literaturan: irakasle ohia, argitaldaria, testu-liburuaren egilea, itzultzailea eta hogeita hamar bat libururen egilea da, horien artean *Axa mixa zilarra* (2000) folkloreaken bilduma bikaina eta *Osaba Bin Floren* (2004) Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria, helduentzat idatzi dituen liburuez gain.

Oraingoan plazaratu duen liburua, *Zaldun beltzak*, elezahar baten kontakizuna da, tituluari erreparatu gero. Edukiari begiratuta, ordea, hori baino askoz gehiago da.

Lehen mailako kontakizunean Maider eta Jokin pertsonaiak aurkezten zaizkigu, baina bien arteko benetako harremana zein den ez dugu berehala jakingo. Izan ere, Jokin galtxagorri bat da, Maider hamar bat urteko neskatoak era berezian «ehizatutakoa» eta geroztik haren zerbitzupeko bihurtutakoa (bikote horrek Philip Pullman-en *Northern Lights* (*Luces del Norte* gaztelaniaz, oraindik

orain *La brújula dorada* izenez zinematua) liburuko pertsonaien eta «daimonion» dire-lakoen arteko harremana ekarri dit gogora): etxeko lanak eta, oro har, gustuko ez dituen gauzak egiten dizkio, eta ipuinak kontatzen ere bai. Hala ere, Jokinek ez du Mainerren aginpidea gogo onez hartzen, eta bien arteko harremana eztabaida eta sesioz beteta dago.

Hain zuzen, galtxagorriak kontatutako ipuin horietako bat da bigarren mailako kontakizuna, letra-molde ezberdinaz emana, eta liburuari izenburua eman diona. Ahozko literaturako ipuin askoren arteko moldaketa da *Zaldun beltzak* galtxagorriaren ipuina, eta genero batetik bestera salto egiten du Mainerren iguripenekin jolastuz. *Edurnezuri* ipuinarenaren antzeko hasiera du; gero printzesak ezkongai aukeratzeko istorio horietako bat bihurtzen da, hainbeste tradizioan aurki daitekeena; geroago bi erresumaren arteko gerra-kontakizuna izango da eta, azkenean, Bizkaiko kostaldeko elezaharra. Narrazioak denetarik du: emozioa, suspensea, umorea, tristura, mezua...

Bigarren mailako istorio hori sarritan eteten da, kapitulutan zatituta egongo balitz bezala, lehen mailakoari bidea emateko, Mainerren eta Jokinen arteko tirabirak elkarriketa bizien bidez azpimarratuz: Maiderrek ipuinaren nondik norakoak asmatuko duela uste duenean, Jokinek beste bide batzuetatik eramaten du narrazioa. Baina, batez ere, egitura horrek, kontalariaren gorabeheren berri tartekatu ahal izateko narrazio ustez nagusia zuzenean ez emateko erabakiak (tradizionala, bestalde), istorio horrekiko distantzia ironikoa ezartzeko funtzioa du: horren bidez, literaturak oro har eta ipuinek batez ere eragiten duten «sinesgaiztasunaren etetea» ezbaian jartzen da; dena zalantzagarri delako eta gertakizunak bestelakoak ere izan zitezkeelako inpresioa jasotzen du irakurleak; epikotasuna galtzen da eta herioak pertsonaia barregarriak edo, onenean, arruntak bihurtzen dira.

Eider Eibarren irudiak oso egokiak dira bitasun hori adierazteko: aurpegi samurren

ondoan, gizon gogor baino gogorragoak agertzen dira, plano eta ikuspuntuen jolasa horren guztiaren lagungarri. Uholdearen irudi zenitala bereziki lortuta dagoela iruditu zait.

Laburbilduz, behinolako kontakizuna eta gaur eguneko harreman «magikoa» elkartzen dituen ipuin gomendagarri bat duzue Txilikuren *Zaldun beltzak*.

Manu Lopez Gaseni



Paularen seigarren atzamarra

Katixa Agirre

Ilustratzailea: PATXI GALLEGU

Elkar, Donostia, 2007

Seigarren zentzumena

Katixa Agirre gasteiztar idazle gazteak haurrentzat argitaratu duen lehen liburua da *Paularen seigarren atzamarra*, helduentzako liburua atera eta denbora gutxira, Elkar argitaletxeko beste idazle batzuen bideari jarraituz.

Tituluan aipatzen den Paula neskato hori da liburuko protagonista eta narratzailea, eta tituluan aipatzen den berezitasuna da kontakizunaren ardatza, ezkerreko eskuan seigarren hatz bat izatea, alegia. Jaiotzetikoa omen da hatz gehigarri hori eta, gainera, botere berezi bat ematen dio horrek bere jabeari: seigarren zentzumen («zentzu» diosku Paulak) moduko bat, inguruko pentsamenduen berri izateko dohaina, hain zuzen ere. Botere horren bidez, gurasoen zein lagunen benetako asmoak jakitea lortzen du Paulak, nahiz eta «gauza bat aitortu behar dut. Batzuetan, besteen pentsamenduk irakurtzeak ez dit ezertarako balio» (18. or.); eta, egia esatera, errealismo fantastikoko zertzelada hori ez da esanguratsua ipuinaren garapenerako. Bestalde, Paularen neba

nagusiaren bitartez, historian izan diren sei atzamardunen pasadizoak kontatzen zaizkigu eta, liburuaren amaieran amak adierazten dio Paulari berezia izan arren, edo berezia izateagatik hain zuzen ere, bereziki maite duela. Istorioaren planteamendua ikusita, garbi dago *Paularen seigarren atzamarra* liburuak izan zezakeen beste titulua *Sei atzamar ditut, eta zer?* izan zitekeela.

Kontamoldeari dagokionez, jadanik esan dut Paulak kontatua dela, lehen pertsona, eta behin baino gehiagotan ohartarazi ere dut aukera horrek dituen zailtasunez, narrazioa ume baten ahotan jartzea, alegia. Lehenengo eta behin, «ahozko narratzaile transferituarena» da narrazioa, hau da, ahozko narrazioetan erabiltzen diren / ziren baliabide fatikoak eta beste. Bestela esanda, kontatzen ari den istorioaren narrazioaren ondoan, narratarioarekiko harremana mantendu eta ziurtatzeko erabiltzen den jarduna behin eta berriz agertzen da, kontatutakoa ondo ulertu dela ziurtatzeko, datorrena aurreratzeko edo balizko entzuleekiko (goitik beherako) harremana ezartzeko:

«Nahiz eta oraindik ez sinetsi, nahiz gezurretan ari naizela pentsatu, ziurrenik jakin nahiko duzue zertan datzan nire seigarren zentzua, zeintzuk diren botere magjiko horiek, ezta? Sinesgogorak eta kuxkuxeroak zarete zuek. Tira, kontatuko dizuet. Adi».(14. or.)

Bistan denez, tonu paternalista zaharkitu hori ez dator bat narratzaile hain gazte baten jardunarekin.

Beste alde batetik, gorabehera handiak daude Paularen narrazioaren erregistroan: ahozkoa irudikatu nahi duten estrategien ondoan (aditza aurreratzea, erdarakadaren bat erabiltzea), hamar euroko aditzak agertzen dira (ikas genezan, isil zedin, egin niezaion...); azken batean, koherentzia falta sumatu diot haren diskurtsoari.

Katixa Agirre haur literaturaren arloan idazle berria izanik, lan editorial eraginkorragoa ondo etorriko zitzaion alderdi narratiboko doikuntza-arazoak zein oro har testuak behar zituen bestelako konponketatxoak zuzentzeko.

Manu Lopez Gaseni



Fantasia jolasak

Gianni Rodari

Ilustratzailea: ROSALBA CATAMO
Ibaizabal, Bilbo, 2006

Liburu honen egilea, Gianni Rodari (Omegna, 1929), aski ezaguna da egun ere, idazle, kazetari eta pedagogo izaki, hezkuntza berritzearen alde berebiziko lana egin baitzuen. Haren *Fantasiaren gramatika* ospetsua eredugarri bihurtu zen aspaldi, irudimena lantzeko ariketak eta bestelako bitartekoak nahi dituen ororentzat. Halaber, haren testuak oso aurrerakoiak dira oraindik ere, iradokizunez beteak, jolastiak. Denboraren joanari eutsi egin diote.

Oraingoan iruzkintzeko dakardan *Fantasia jolasak* liburu hau ere haurren sormenean eragiteko xedeari lotzen zaio, bistan denez.

«Ezustekez beteriko kutxa da liburu. Gianni Rodarik erakusten dizkigun fantasia-jokoetan, hitzekin jolasteko modu asko aurkituko ditugu.»

Halaxe diosku Mario Merlinok, Gianni Rodariren liburu honen atarikoan lanaren nondik norakoak ari zaigularik. Eta, izan ere, horixe da liburu bere mami eta muinean, ezustekez beteriko kutxa bat, fantasiaren

haritik haurren sormena landu eta hizkuntzarekin olgetan ibiltzeko aukera aparta ematen digun kutxa magikoa. Eta kutxa horretako hitzak mugitu egiten dira, buruz behera jartzen dira, gordeketa ibiltzen dira, eta zukua dute, eta doinua... Kirrinka ere egiten dute, ongi erabiltzen ez baditugu.

Liburuaren abian ipintzen duen *Binomio Frantastikoa* deritzon estreinako atalean ondotxo erakusten da aski direla bi hitz, esanahi ezberdinak izanda ere, kontakizun xebeak eta bitxiak osatu eta ipuin alai eta barregarriak harilkatzeko. Batzuetan, Rodarik berak idatzitakoak eta, bestetan, eskoletako haurrek ekimen horien harira sortutako lanak dira honen guztiaren adibide eta erakusgarri. Liburuan aurrera egin ahala, ugari dira egileak sormena astintzeko luzatzen dizkigun proposamen eta ekimenak: poema jolastiak egiten ikastea, proposatutako ipuin bati amaiera ezberdinak ematea, hitz berriak asmatzen ikastea, esaera eta atsotitzekin aritzea, egoera bitxi edo egoera fantastiko batetik abiatuta istoriotxoak sortzea: *zer gertatuko litzateke krokodilo bat telebistako lehiaketa batera aurkeztuko balitz?* Liburuak dakartzan istorioak irakurri eta beroriek abiapuntutzat harturik bestelakoak asma ditzakete haurrek, ahoz zein idatziz. 10 urte inguruko neska-mutilek telebista, bideo jokoak eta antzekoak poliki-poliki alde batera utzi eta taldean edo guraso zein irakaslearen pentsutan jarduteko liburu da honakoa. Rosalba Catamok zuri-beltzean egindako marrazki iradokitzaile eta fantastikoak tartekatzen dira orrialdeotan, kontakizunak eta areago girotzeko.

Bestalde, sumatzen dut Rodariren liburu hau euskaraz eman duen Juan Kruz Igerabide idazleak ez zuela lan samurra izango atsotitzak, istorioak, hitz jokoak eta enparauak jatorrizkotik geure giro eta kulturara bortxatu gabe ekartzeko eta egokitzeko garaian. Jardunbide horretan itzultzailearen esku doa tarteko da, zalantzarik gabe.

Xabier Olaso

Pijama marradunaz jantzitako mutikoa

John Boyne
Alberdania, Irun, 2007

Sentsazio kontrajarriak sortu dizkit liburu honek. Alde batetik, berritzailea iruditu zait agintari nazi baten semea protagonista aukeratu duelako, nobela non eta Autsbizen kokatu duelako, Bruno mutikoak nor eta hesiaren bestaldeko Shmuel inbidiatzen duelako... baina, beste alde batetik, karga sentimental handi hori ez dakit ez ote den eskematikoegi agertzen, erabilitako hirugarren pertsona ez ote den urrutiegi eta sineskaitz samar gertatzen...


Sentsazio kontrajarriak sortu dizkit liburuaren kontrazalak ere: «Behin liburu irakurtzen hasiz gero, ibilaldi bati ekingo

12 +

diozu, eta Bruno izeneko mutiko bat izango duzu bidelagun. Eta, lehenago edo geroago, Bruno eta biok hesi baten parera iritsiko zarete. Mundu osoan badira oraindik antzeko hesiak. Halakorik sekula zeharkatu behar ez izatea opa dizugu».

Eta sentsazio kontrajarriak ditudalako, uste dut askoz ere nahiago dudala Alberdania bertan argitaratutako Agota Kristof-en *Koaderno handia* nobelaren zirrara. Eta hala ere uste dut liburu honek aukera zabala eskaintzen digula, irakurketa erraza duelako –Mirentxu Larrañagaren itzulpena oso txukuna da– eta batez ere filmarekin konpara daitekeelako, eta ikasleekin ondorioak atera daitezkeelako: zein den hobea, nobelari lehen pertsona hobeto ote zetorkion...

Laura Sagastume




Kensukeren mundua

Michael Morpurgo
Ilustratzailea: MICHAEL FOREMAN
Elkar, Donostia, 2008

Robinson postindustrialia

Michael Morpurgo Erresuma Batuko idazleak badu itzalik haur eta gazte literaturaren mundutxoan: hirurogeitik gora liburu argitaratuta izateaz gain, bere herriko sari garrantzitsuenetariko batzuen jabe da, horien artean *The Children's Laureate* eta, eskuartean dugun liburuagatik jasoa, *The Children's Book Award* delakoa. Gure artean aski ezezaguna zen, harik eta duela bi urte Alberdania argitaletxeak *Peaceful soldadua* Lehen Mundu Gerrari buruzko eleberria euskaraz plazaratu zion arte.

Kensukeren mundua eleberrian kontatzen den istorioa 1987an hasten da, Erresuma Batuan, Michael narratzailearen aita adreilufabrikatik bota eta langabezian geratzen denean (hango irakurleentzat jakina ez ezik mingarria ere izan zenez gero Morpurgo aitpatzen ez duen arren, M. Thatcher-ek burdinazko eskuaz sindikatuak botere gabetu eta milaka langile langabeziara bidali zituen



garaian). Orduan, beste asko bezala hondoratu beharrean, Michaelen aitak bizimoduz erabat aldatzeko erabakia hartu zuen: geratzen zitzaion diru apurrarekin belaontzi bat erosi eta munduan zehar nabigatzeko erabakia. Hala abiatu ziren Michael hamabi urteko mutikoa, aita, ama eta Stella Artois

artzain-txakurra abentura ezezagunari aurre egitera. Atlantiko ozeanoan hegoaldera egin, Lurmutur Hiriairen paretik Indiako ozeanoan sartu, Australiako hego kostaldea zeharkatu eta iparralderako norabidea hartu zuten Ginea Berrirantz.

Liburuaren lehen herenean gaude, eta hemen gertatzen da liburuiko korapilo nagusia: gau batez, olatu handi baten ebatak Michael eta txakurra ontzitik bota, eta itsasoan galdu ziren. Hurrengo goizean, uharte jendegabe bateko hondartzan agertu ziren, Robinson posmodernoak bailiran.

Laguntzaile bat zegoen, noski, liburuari izena ematen dion Kensuke zaharra. Hari esker biziraun ahal izan zuen Michael tximino eta eltxoz betetako uharte hartan. Eta Kensuke horrek bazuen bere istorioa, historiarekin bat egiten duena. Inoiz aipatu izan dut best seller izeneko liburu horietako askoren arrakastaren zati handi bat Historiako pasarte ezagunen batekiko lotura dela: horra hor *Pijama marradunaz jantzitako mutikoa* edo *La catedral del mar*, eta abar. Kasu honetan, Nagasakiko bonba atomikoari ihes egindako japoniarra dugu Kensuke, uharte hartara heldu eta

berrogeita hamar urte baino gehiago han emandakoa. Historiak, gainera, horrelako kasu bat baino gehiago dokumentatu du. Edonola ere, Kensuke zaharraren eta Michael gaztearen artean kimika berezi bat sortzen da azkenean, sakonean antzekoan baitira: Kensukek emaztea eta semea galdu zituen II. Mundu Gerran, eta Michaellek gurasoak galdu ditu.

Narrazioa flash-back modura kontatua dago (*Robinson Crusoe* liburua bezala; hari egindako omenaldi-edo gisa seguruenik) eta, beraz, irakurleak hasiera-hasieratik daki

12 +

Michael galdu zela eta Kensuke izeneko norbaitek lagundu ziola; interesgune nagusia, hortaz, uharteko bizimoduan eta Kensuke japoniarrarengan kokatzen da.

Defoeri kritikatu zaizkion kontu asko saihesten saiatzen da Mopurgo, narrazioa sinesgarriagoa eginez (Crusoe ez bezala, aurkako ingurumenaren ondorioak nozitzen ditu Michaellek), baina niri oraindik harri-garria iruditzen zait horrelako uharteetara iristen diren naufrago guztiak hondartza

zuri batean agertzea beti eta ez, adibidez, arroken artean edo labarreko kobazuloren batean. Bestalde, mutikoaren eta zaharraren arteko harremanean kolonialismoaren az-tarnaren bat sumatu uste izan dut: Kensuke zaharrak ingelesa irakasteko eskatzen dio mutilari, kontrakoa espero zitekeen arren.

Oro har, ordea, oso ondo irakurtzen den liburua da, narrazio bizia darabilena, hunkigarria eta irakurleari zer pentsatua emango diona, euskarazko bertsio duinean emana.

M. L. G.

Oskar eta andre arroxa

Eric-Emmanuel Schmitt
Itzultzailea: MIREN ARTETXE
Elkar, Donostia, 2008

Bizitza oparia da


Lehendik ere ezagutzen genuen idazle honen liburu bat euskaraz, *Ibrahim jauna eta Koranaren loreak*, Patxi Zubizarretak finezia handiz itzultakoa; eta, horregatik, arretaz jarraitzen ditugu antzerki-lan ugari idatzi duen Schmitt jaunaren obrak.

Oraingoan, Miren Artetxek itzuli du liburua, Gasteizen Euskal Filologia ikasten ari den bertsolari hendiarrak.

Liburuaren izenburuak sortu digu zalantza nagusia: Mamie Rose Oskarren emakume-laguna da erietxean. Gaztelaniazko itzulpenean, izen hori du, Rose, alegia. Frantsesezko jatorrizko izenburuan, ordea, *Oscar et la dame rose* da.

Irakurlea despistatuta dago: Andre Arroxa, zergatik? Mantal arroxa duelako, azalean agertzen den ilustrazioaren antzera? Izen propioa Arroxa duela argi dago, baina Andre hori ez zitekeen Anderea izan edo Amama gertuagokoa, agian? Bitxikeria honengatik irakurlea galtzeko arriskuan egon daiteke, eta irakurle heldu garenok, bitartekari garen neurrian, konparatzeari ekingo diogu, erdarako edizioak aztertuz, adibidez. Horrela, gaztelaniazko Obelisco argitaletzeko bosgarren edizioa jaso dugu,

14 +



2007koa, eta, halaber, jaso dugu *Oscar et la dame rose* (Albin Michael, 2004) frantsesezkoa, dotorea erabat, kartonezko edizioan eta ilustrazio ugarirekin.

Orain, berriz, parentesi bat eginez, edizio ezberdinetaz hitz egin dezakegu, euskal argitaletxeak zaindu beharko lituzkeen alderdiei buruz, esaterako, ilustrazioak, diseinua, argibideak, e.a. (azken hauek irakurrita gaztelerazko edizioan, jakin daiteke, adibidez *Oskar eta Andre Arroxa* liburua

eta Ibrahim jauna... *Milarepa* izenburua duen liburuarekin batera (oraindik euskarara itzuli gabekoa) *Ikusezinaren Trilogia* osatzen dutela.

Tamalez, euskal edizioak gabeziak ditu, eta hori nabarmen agertzen da beste hizkuntzetako liburuekin alderatzen hasita. Interesgarria eta oso gomendagarria den liburu batek hau baino edizio anbiziotsuagoa merezi zuela uste dut. Izan dadila hau euskal argitaletxeen hurrengo erronka, alegia, haur eta gazte literaturako edizioari protagonismo handiagoa ematea.

Goazen bada, liburuaren gaia aztertzeraz: minbizia duen gazte baten eskutitz sorta dira irakurtzeko ditugunak, hartzailea zein, baina? Jainkoa bera!

Kontakizuna errealismotik gertu dago eta, idazleak abilezia handiz umore beltza sarri darabilenez, oso irakurketa hunkigarria suertatzen dela esan daiteke.

Liburu bitxia da, berezia, gizartean pil-pilean ditugun gai larriei buruzkoa, modu xume baina sakonean hitz egiten digu heriotzaz, fedez, norberak dituen beldurrei buruz, e.a.

Nerabezaroan daude ospitalean bizi diren neska-mutiko horiek, kezka bertsuak dituzte eurek eta kanpoan bizi diren gazteek: amodioa, gurasoen arteko harreman zailak. Baina ebakuntzak eta heriotza bera gertuagotik ezagutzen dituzte, horretan dira bereziak gaixo bizi diren gazte hauek.

Irribarrea samur aterako zaigu ezpainetara eta, une batzuetan, negargura ere eman dezakeen irakurketa dugu esku artean.

Beldurra sortu beharrean, konfiantza ematen du, izan ere, heriotza modu normalean ikusten laguntzen du: «ezetz inork entzun "hil" hitza ospitale batean. Ziur egon

isilune bat egongo dela eta beste zerbaitetaz hitz egiten hasiko dela norbait. Medikuek erakutsi nahi dute ospitalera sendatzeko gatzela soilik baina hiltzera ere bagatoz». (15.or.)

Mamie-Rose indarra hartzeko ezinbesteko adiskidea da Oskarrentzat, egunero bisitan datorkio, barre eragingo dio, erakutsiko dio bizia ahula dela, hauskorra eta iragankorra, eta, horrela, bizitzen jarraitzeko kemena emango dio.

Asun Agiriano

Irurac bat

Jokin de Pedro


Elkar, Donostia, 2008

Nobela poliziakoan barneratzeko

Liburu honen azalean ikus daitekeen bezala, hilketa baten inguruan eginiko narrazioa dugu hau. Edo zehatzagoa izanda, nobela poliziakoa izango litzateke *Izu taupadak* sailean kokaturiko lan hau.

Jokin de Pedrok generoko elementu batzuk erabili ditu idazlan honetan; narrazioan elkarrizketak eta ekintzak dira nagusiak eta narratzailea hirugarren pertsona orojakilea; argumentuan korapiloa, errugabearen atxilotketa eta inspektorearen izaera berezia ditugu, baina, hala ere, zerbaitek huts egiten du. Alfred Hitchcockek zioen intrigan tentsioa lortzen dela ikusleak —berak filmei buruz ari baitzen— ikusten duenean mahai azpian bonba bat dagoela ezta egiteko prest eta mahaikideek lasai, ezer jakin gabe, jarraitzen dutenean. Nobela honetan ere bada horrelako une bat, amaiera aldean, irakurleak aurreikus dezakeenean Garik emaztea hil nahi duela itsaslabarretik behera botata, edo Lidia, senarrak hori egin diezaiokeela jakinda, harengana abiatzen denean; eta, hain zuzen, horixe gertatzen da nobela honetan: gorabehera handiak daudela, lortutako elementu, une, karakterizazio batzuen ondoan badirela biribildu gabeko beste batzuk.

Irurac bat bi ataletan banaturiko nobela dugu, lehena da luzeena eta bertan nobelaren puzzlea osatuko duten hainbat elementu agertzen joango dira. Emakume begibeltz misteriotsua; hiltzaile profe-



sionala, Gari eta Lidia senar-emazteak eta hilketa horretan korapilaturik agertzen diren bi protagonistak: Miriam, okerreko lekuan egoteagatik hiltzen duten emakumea, eta Aitor, nobelako protagonista nagusia. Izan ere, banandu berria den gizonezko hau dugu hilketa baten erdian, berak ezer jakin gabe, agertzen den pertsona.

Nobelaren argumentua, orokorrean, nahiko interesgarria da; badira, hala ere, halabeharriak, kasualitateari utzitako eszena batzuskinesgarritasuna galarazten diotenak nobelari, eta hori generoarean kontra doan zerbait da. Egia da oso modu azkarrean —eta entretenituan— irakurtzen den lana dugula, eta, alde horretatik, ziur gaude lan interesgarria dela nobela hau, baina susmoa dut zenbait kontutan idazleak ez duela jakin (edo nahi) nobela biribiltzen.

Hizkuntzaren erabilera dugu horren adibide bat. Gorospe inspektorea, bizkaieraz egiteaz gain, herri esamolde asko erabiltzen dituen pertsonaia dugu:

«—Badakizu, zer? Arnasan be guzurra askok. Holantxe esaten eban gure amak, eta egia da, baia bestetik guzurra biderdikoa da, esan gura dot, guzur bat sinestuarazoteko beste lau esan behar, ta hor galduten da guzurtia, ze, nahitaez, guzurak hankak labur... ulertzen deustazu, ezta?» (85. or.)

Inspektoreak oso hizkera markatua egiten du... gainerako pertsonaia guztiak euskara batu garbia darabiltelako. Hots, eginiko, eta oso modu onean eginiko apustu hori, pertsonaiaren karakterizazioa hizkeraren bidez, pobre edo hanka-motz geratzen dela uste dut, gertakariak Bizkaian jazotzen diren neurrian beste protagonista batzuek ere hizkera «markatua» izan beharko bailukete. Egia da, bestalde, generoan inspektorea edo ikertzailea izaten dela ongien karakterizaturiko pertsonaia (gogoan izan Camilleriren Montalbano edo Donna Leonen Brunetti inspektoreak, edo, agian, horiek baino lortuago den Kurt Wallander antiheroia, Henning Mankellek sortua).

Ñabardura horiek alde batera utzita, Jokin de Pedrok eskaintzen digun lan hau interesgarria da nobela poliziakoan barneratzeko, irakurlea erraz barneratu da Aitorren zoritxarreko paperean eta interes handiz jarraituko ditu Gorospe inspektorearen ikerketak eta, batik bat, Lidiaren egoera, heriotzarekin jolasten ari den emakumearen egoera.

Xabier Etxaniz Erle

Bela Kabelatik Ternuara

Xabier Etxaniz

Pamiela, Iruñea, 2008

Zer ari naiz irakurtzen?

Irakurlea salako besaulkian eseri da –eta autobusean doa, edo trenean, edo haginlariarenean dago eta, atzazalak ez jatearren, liburua zabaldu du–; irakurlea kontaktan barneratu da eta ez da bere itxuraz konturatzen, irakurtzea bera den gertakari inkontzienteaz ohartzten. Bada, nik uste dut asmo horixe dutela Xabier Etxanizek plazaratu berri dituen azken bi liburuek: *Literatura eta ideologia* batetik eta *Bela Kabelatik Ternuara (Atxagaren Haur eta Gazte Literatura)* bestetik, hau da, kontatutako historiarekin batera irakurlea zer jasotzen ari den –zer jasaten– eta ikustea, adibidez Atxaga irakurtzen ari denean, zer ari den irakurtzen.

Literatura eta ideologia orokorragoa da eta adituak ez dio soil-soilik HGLri erreparatzen, baina beti dago keinuren bat edo beste, eta irakurketa harrigarriagoa du, ustekabeek ziprztindua, esate baterako Disneyren Aladdin filma aztertzeo orduan:

«Amerikar baloreak bultzatzen dituzte Aladdinek eta haren lagunek; amerikar kirolak izango dituzte gogoko, amerikar feminismoa defendatuko dute, norberaren askatasuna desiratuko... eta fisikoki ere amerikarren antza izango dute. Gaiztoek, aldiz, fisikoki ezaugarri arabiarragoak dituzte, hizkera ere atzerritarra (Ingalaterrako ingelesa)».

Oso argigarria da, aldi berean, ilustrazioari eskainitako atala; ikusten denarekin batera, ikusten ez denari ere begiratu behar zaiola diosku, esate baterako etxean –edo sukaldean– agertzen ez den aitari, edota aita horrekin dauzkan betaurrekoei eta egunkariari –biak ere intelektueltasunari lotuak...–; aitzitik, ikusi beharra dago emakumea nola ageri den, edota non ez den ageri...

Zer pentsa ematen duen liburua da Etxanizena, eta ez du ezkututzen HGLren inguruan sortu izan den errezeloa: zuzena



al da familia eredu modernoak agertzeo literatur bilduma bat abiatzea?; irakurketa ez al dago irakasleek edo bibliotekari-saltzaileek bideratuegia? Hainbat adituren erantzunak aipatuko dizkigu, baina, batez ere, salako besaulkian ia inkontzienteki irakurtzen ari denaren irakurketa kritikoa eta, kontzientea bultzatu nahi du.

Bela Kabelatik Ternuara saioa, aldiz, zehatzagoa da, mugatuagoa, eta Bernardo Atxagaren haur eta gazte literatura du aztergai, baina oraingo honetan arlo hori idazleak helduen literatura idazteko frogalekutat joko du. Azterketa sakona eta zabala da: aldiak, ezaugarriak, salmentak, itzulpenak... eta, azken finean, erakutsi egingo digu helduentzako bere lan askoren baliabide eta estilo aukeraketek HGLn egindako lanetan dutela oinarri, nolabait ere HGL askatasun esparrua gertatu zaiola. Baina lan honetan ere irakurleak topatuko du bitxikeriarik –argigarria da ikustea liburu batek zein azal eta izenburu desberdin hartzen dituen gainerako hizkuntzetan; liburuaren alderdi bisuala ere oso landua da–; irakurleak topatuko du ustekaberik, hala nola Atxagak hastapenean egindako adierazpen hau:

«Egia aitortu behar badut, uste dut nik neronek ere ez diodala arte kategoriarik ematen, eta hobetzat edo garrantzi handiagokotzat jotzen ditudala helduentzako lanak».

Eta, hain zuzen ere, beharbada horixe da liburu honen bertuterik handienetako bat, hau da, idazlea bere bilakaeran –bakardadean– ikusaraztea.

Bi liburu, beraz, gure ohiko irakurketan eten bat egiteko, bi aukera paregabe hausnarketarako, ongi eta argi idatziak –eta ilustratuak.

Laura Sagastume